



Arartekoaren 2018S-2906-17 EBAZPENA, 2018ko apirilaren 27koa. Horren bitartez, Euskal Trenbide Sareari iradokitzen zaio Durangoko tren geltokian komun publikorik ez jartzeko erabakia berrazter dezala.

Aurrekariak

1. Arartekoak kexa bat jaso du. Horren bidez, salatu da Euskal Trenbide Sareak (aurrerantzean, ETS) ez diola erantzun Durangoko tren geltokian komun publikorik ez zegoela-eta 2017ko abuztuaren 4an jarritako erreklamazioari.

Interesdunak adierazi du aipatutako erreklamazioa Atxuriko tren geltokian aurkeztu zuela, eta han esan ziotela kexa ETSri helaraziko ziotela, izapidetu zezan. Hala ere, denbora luze igaro bada ere, ez du erantzunik jaso.

2. Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen, eta ondoren, sail horri laguntza eskatu zion, interesdunaren eskaerari erantzuteko zer aukera zeuden jakin eta horiek egiaztatzeko.

Gogoetak

1. Egindako eskaerari erantzute aldera, ETS-RFV-ek honako hau jakinarazi dio Arartekoari:.

“Durangoko tren geltokian komun publikoak ez daudela eta 2017ko abuztuaren 4an (..) jaunak aurkeztu zuen kexari ez erantzuteagatik Euskal Trenbide Sarea -Red Ferroviaria Vasca (ETS-RFV) Erakunde Publikoari 2018ko otsailaren 5ean bidali zenuen zure idazkiari dagokionez, Erakunde Publiko honek jakinarazi behar dizu asko izan direla gai horren inguruan jaso diren erreklamazioak eta guztiei ere erantzuna eman zitzaiela, 2014-2017 urteei dagozkien eta erantsita bidaltzen dizkizugun gutunetan ikus daitekeenez. Dena den, adierazi behar da, (...) jaunaren kasuan, jakinarazpen hori ezinezko bilakatu duen akats administratiboren bat gertatu dela, eta benetan sentitzen dugula jakinarazi behar dizut.

Durangoko geltokiaren Eraikuntza Proiektuaren barruan ez zen komun publikorik instalatzea aurreikusi, geltoki horrek duen zerbitzu mota kontuan izanik; esperientziak erakutsi digunez, geltokietan komunak instalatzea arazo ugari sortzen ditu (drogak, erasoak, bandalismoa, garbiketa ...). Hori dela eta, komenigarria iruditu zaigu ez instalatzea





Amaitzeko aipatu behar da geltokien egungo diseinu arkitektonikoaren errealitatea espazio irekiak eta ondo ikusten direnak sortzea dela, erabiltzaileen eta instalazioen segurtasuna hobetzeko, batez ere.

Hori dela eta, adierazi behar dizut momentuz Erakunde Publiko honek ez du aurreikusten geltoki horretan inolako jarduketarik gauzatzerik

Hori adierazita, gure akatsa konpontzeko xedez, dagokion erantzuna emango diogu (...) jaunari”.

2. Arartekoak eskerrak ematen dizkio erakunde horri okerra, hau da, kexagilearen idatziari erantzun ez izana, zuzenduko duela iragarri izanagatik. Erakunde honen ustez, neurri horrekin erantzuna emango zaio interesdunak aurkeztutako kexa formalari. Hala ere, gaiaren funtsari dagokionean, arretaz aztertu ditugu ETSk, Durangoko geltoki berrian komun publikorik jarri ez izana justifikatze aldera, emandako argudioak. Arartekoak, arrazoi ekonomikoak ez ezik, aipatutako beste arrazoi batzuk ere izan ditu kontuan, segurtasunari buruzkoak bereziki. Horrez gain, erakunde honek badaki ETSk egokitutako komunak jarri dituela Bilbo-Donostia lineako tren guztietan. Erakunde hau neurri horren aldekoa da; izan ere, ez dago zalantzarik bidaiarien premiak behar bezala asetzen lagundu duela.

Hala ere, uste dugu ETSk, bere azpiegiturak diseinatzean, geltokietan komunik ez jartzea erabakitzean aintzat hartutako irizpideak ez ezik, beste irizpide batzuk ere kontuan hartu beharko lituzkeela; izan ere, bada gizarte-konbentzio bat erabiltzaileei pentsarazten diena geltokian komun publikoak izango direla, eta komun horiek, oro har, biztanle guztien premiak asetzen dituzte, eta bereziki adineko pertsonenak, mugikortasun urriko pertsonenak, adingabeenak eta gernu-ihesa pairatzen duten pertsonenak.

Arartekoak badaki erabilera publikoko azpiegitura horietan komunak jarritz gero, gutxieneko higie eta osasungarritasun baldintzak bermatu beharra dagoela, eta horrek behar bezalako mantentze neurriak hartzea dakarrela.

Gogoeta horiek guztiak direla eta, Arartekoaren ustez, irtenbide egokia ez da komunik ez jartzea, baizik eta horiek ezartzean aipatutako elementu guztiak kontuan hartzea, bai eta ETSk alegatutako arrazoi ekonomikoak eta segurtasunekoak ere, ahal den heinean aintzat hartu beharko direnak.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak — 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako iradokizun hau egiten zaio EUSKAL TRENBIDE SAREari:





IRADOKIZUNA

Arartekoak ETSri helarazi dizkio aipatutako gogoetak, eta hartutako erabakia, hots, bere instalazioen komun publikorik ez jartzea, berrazter dezala iradoki dio. Horri lotuta, erakunde horri iradoki diogu, aipatutako arrazoiak kontuan hartzeaz gain, beste irizpide batzuen inguruan hausnar dezan, esate baterako nola eragiten dien neurri horrek, oro har, erabiltzaile guztien premiei eta bereziki adineko pertsonenei, mugikortasun urriko pertsonenei, adingabeenei eta gernu-ihesa pairatzen duten pertsonenei.

